

## 8. eta 9. ERANSKINAK

# PROIEKTU OSAGARRIAK

- ZEHAR-LERROEN HIZKUNTZ TRATATERA
- EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA SUSTATZEKO EKINTZAK

## **GELA BARRUKO EREMUA: KUDEAKETA PEDAGOGIKOA**

### **PROIEKTU OSAGARRIAK**

Ohiko programetatik at maila guztietarako antolatzen diren proiektu komunak dira proiektu osagarriak; hau da, arlo arteko lotura edota lotura bertikala (maila, ziklo, etapa artekoa) eskatzen dutenak. Hamaika proiektu txerta daitezke izenburu horren azpian: irakurketa sustatzeko planak, Agenda 21, gosearen aurkako kanpainak, bizikidetza-planak, kulturartekotasuna...

Gisa horretako proiektuak bi ardatz nagusiren inguruan aztertuko ditugu:

#### **ZE HAR-LERROEKIN LOTURIKO EKINTZEN HIZKUNTZ TRATAERA**

- **Zehar-lerroekin loturiko ekintzen hizkuntz trataera** (8. eranskina)

##### Helburuak

Atal hau behatzearen helburua da ekintza hauekiko hizkuntz irizpideak ikastolako hizkuntz helburuekiko koherentzian finkatuta dauden aztertzea.

##### Pausoak

Atal hau betetzeko, etapetako koordinatzaileei eta arloko irakasle bati informazioa eskatuko diegu. Horretaz gain, zuzendaritzarekin eta etapetako koordinatzailearekin bildu eta informazio hori osatu egingo da.

#### **EUSKARA eta EUSKAL KULTURA SUSTATZEKO EKINTZAK**

- **Euskara eta euskal kultura bultzatzeko ekintzak** (9. eranskina)

##### Helburuak

Atal honetan aztertuko dira euskara sustatzeko ekimenak (euskararen eguna, motibazio kanpainak...), euskal literaturaren inguruko ekintza bereziak (idazleak geletan, bertsolaritzaren egitasmo osagarriak...), edota euskal kulturaren errotuta dauden usadioak ezagutze eta lantze aldera antolatzen diren ekintzak (inauteriak, Santa Ageda, Olentzero...). Ekintza horiek hausnartutako plangintzaren bitartez bideratu behar direnez, plangintza hori ziurtatzea da atal hau aztertzearen helburua.

##### Pausoak

Galdetegi hau Euskaraz Biziko dinamizatzaileak beteko du.

❖ Ikastolan ZEHAR-LERROEN plangintzarik badago?

Bai, ikastola osorako plangintza egituratua dugu.  Bai, etapa-mailako plangintza egituratua dugu.  Ekintzak egiten dira, bai, baina plangintza garbirik gabe.

❖ Zehar-lerroen inguruko proiektuak ikastolaz kanpoko erakundeekin elkarlanean garatzen dira maiz. Kasu horietan euskarari emandako trataera dugu aztergai (jasotako dokumentazioan, erakundearekiko harremanetan, ikasleek egin beharreko lanetan eta abarretan).

Azaldu azken bi ikasturteetan gauzatutako ekintzak ondoko taulan.

URTEA	EKINTZA (laburki azaldu)	PARTAIDEAK (mailak, zikloak...)	LANKIDETZA ERAKUNDEA	EUSKARAREN TRATAERA

**Ikastolan EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREN inguruko jarrerak eta/edo erabilera bultzatzeko proiektuen plangintza**

<b>Ekintzak planifikatzeko irizpiderik al dago? Zein?</b>	
<b>Etapamailako ekintza egituratuak al daude?</b>	
<b>Etapen arteko ekintzak bultzatzen dira?</b>	
<b>Ekintza horiek, berez, komunikazio-egoera esanguratsuak dira. Nola antolatzen dira horiek ikasleen hizkuntz erabilera bultzatzeko?</b>	